

aikor!



txorieerriko aldizkaria

**Lau zulo
eta lau
cm, hori
duk
marka!**

Iñigo Aurrekoetxea, harrizulatzaila

Euskal Herriko txapelduna

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea,
Fernando Olabarrieta, Oihana
Astobieta, Maripi Agirre, Idioia
Alzibar, Inés Serrano, Joseba Gotzon,
Gela Pedagogikoa, Gorka, Imanol
Alvarez, Paco Estévez, Javi Agirre,
Larrabetzuko Geroa Elkartea,
Txorierriko Segi, Jon Ander Rola,
Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka
Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzeko aldizkariaren adierazi-
tako esanaren edota eritxien
erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria



22 Miren Elorriaga



26 Olarreta Pilota Elkartea



14 Iñaki Barcena eta Txema Pico



13 Eneko Bilbao



20 Mikel Zarate



11 Urgabe

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Hemeroteka 7Laburrak eta albisteak
11Gurean izan da... Urgabe 12Gazteen txokoa 13Gaztea eta... Eneko
Bilbao 14Txema Pico eta Iñaki Barcena 16Iñigo Aurrekoetxea
20Mikel Zarate 22Miren Elorriaga 24Loiu eta Larrabetzuko
Kanposantuak 26Olarreta Pilota Elkartea 28Osasuna 29Teknologia
30Txorierri ezagutu 31Txorierriarrak munduan
32Sukaldaritza 33Denbora pasa 34Agenda

**AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu,
hemen dozu ere:**

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

Orri hau helbide honetara bialdu: Aresti, 2 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna



Lurdes Lasuen

(Txorierriko mankomunitateko Euskara teknikaria)

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatuko da, hau da, Xabierko Frantzisko egunean. Baina data horren jatorria Eusko Ikaskuntza erakundeari estu lotzen zaio. Lehenengo Euskararen Eguna duela 50 urte baino gehiago egin zen, 1949an, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Ipar Euskal Herrian ez ezik, Parisen, Mexikon, Caracasen, New Yorken eta beste leku batzuetan ere ospatu zen Euskararen Eguna. Geroztik, urtero izan da egunaren ospakizuna Xabierko Frantziskoren egunean beti ere.

1995ean, kanpoko Gizataldeen Lehen Mundu Biltzarrean, Uruguaiako ordezkariak eguna berrindartzeko proposamena egin zuen. Diasporako euskaldunek egun handitatzat zutena Euskararen Eguna ofiziala izendatzeko eskatu zuten uruguaiarrek.

Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak ontzat eman zuten proposamena eta abenduaren 3a, Xabierko Frantziskoren eguna, Euskararen Eguna izendatzea erabaki zuten.

Euskara euskaldunok elkar ulertzeko hizkuntza da. Hizkuntza hau belaunaldiz belaunaldi heldu zaigu; beraz, hartu dugun ondare

hori gure atzetik datozei transmititzea da gure ardura.

Orain gutxi arte familia eta lagunartean erabilia izan den hizkuntza hau ikastetxeak direla, euskaltegiak direla, komunikabideak direla, aisialdia dela, biziberritzen ari da. Hala ere, alde nabarmenak daude lurralde batetik bestera. Lurralde guztietan euskara ez da berdin hedatu eta biziberritu; esate baterako, ofiziala ez den Nafarroako lurretan eta Iparraldean, euskaldunak izan diren herrietan ere, atzerakada nabarmena nabaritu da urte gutxitan.

Txorierriko egoera aztertuz gero, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian islatzen diren hiru esparruetan (euskararen geroratzea:

“Euskara belaunaldiz belaunaldi heldu zaigu; beraz, hartu dugun ondare hori gure atzetik datozei transmititzea da gure ardura”

euskalduntze-alfabetatzea, irakaskuntza eta transmisioa; euskarazko zerbitzu eta produktuetan: administrazioa, lantokiak, merkataritza, aisialdia, kirola eta erlijioa; kulturagintza eta komunikabideak) pauso txikiak emanez bada ere, aurrerapauso nabarmena ikusi da. Seme-alabak euskaraz hezi nahi dituzten Txorierriko gurasoek bermatuta dute aukera hori bertoko eskola eta institutuan “D” eredu delako eredu nagusia; Txorierrin dauden euskaltegiek euskalduntze-alfabetatzean egindako lana ere oso garrantzitsua izan da, aukera hauek beren eragina izan dute Txorierriko euskaldun kopuru igoeran. Komunikabideetan ere aldizkari euskaldun bat eratu da bertoko euskara elkartearen eraginez; administrazioaren aldetik ere 2003-2006rako Euskara Biziberritzeko Plan bat egiteko konpromisoa hartu da. Plan honen ondorioz urtean birritan batzen den Euskararen Aholku Batzordea osatu da; organo aholku-emaila hori gizarte-eragileen iritzia eta ikuspuntua ezagutzeko sortua da, eta EBPN plan irekia bezain osatu eta eraginkorra dela azpimarratu behar da.

Kaixo mundu!

Fernando Larrondo
(Irakaslea)

Bueno, urten dot. Eta orain, zer? Isilean ia 42 aste bikote baten burujanak eta agobioak aguantetan emon eta gero, azkenik ezetu dodaz nire gurasoak, edo, behintzat, holan agertu eta aurkeztu jataz. Behin hasikerako zalantzak eta bildurak pasata, aste bi-edo, gaur esan daiket erabat kontrolpean daukadazala.

Gose nazenean, negar apur bat egin eta han dator bat nire beharrianak asetzen. Beste batzutan, hankarte busti-kakaztu ostean hara non datorren oihalak aldatzeko azpikontratutako tipoa. Etzanda egoteaz aspertzen nazenean, kejan hasi eta hor datoz euren besoetan leku batetik bestera eroaten. Normalean, oihalen azpikontrata darian tipoa izaten da arinen etortzen jatana, gixajoari penea emoten ei deusat.

Benetan makina perfektua enpresa hau, hi! Ni primeran bizi naz. Lantzean behin, aho zabalik eta lerdo arpegiagaz etortzen jataz eurak eta beste batzuk nire barrea eragin gurean. Nik, txarto ez ibitearren, nire irribarrerik goxoengaz erantzuten deusiet, poz-poz egon daitezkan. Inozenteok!

Baina zalantza bat daukat. Ia nork argitzen deus-tan hurrengo misterio hau. Nigaz bizi diranek modu baten egiten deustie berba, baina gero kalera urten eta gehienek beste berbakera arraro bat erabiltzen dabela ikusi dot. *Qué hermosa está!, Se parece a la madre!* eta antzekoak entzun dodaz sarri. Are gehiago, nire pisukideen artean be entzun dodaz holangoak. Orduan, zelan ulertzen da hau? Pentsetan hasia nago ez ete dan jaiobarriokaz zortzi-hamar urte bete arte komunikatzeko erabiltzen daben hizkera berezi eta primitiboren bat izango...

(jaiobarri baten diariotik ataratako pasarteak)

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Beti prest

Sinestunek "*Jainkoak hala nahi izan du*", eta sinestun ez direnek "*Bizitza halakoa da*" esaten dute ezbeharren bat gertatzen denean. Hala ere, azalpen hauek gutxirako balio dute gure gertuko batek bizitzako kolpe bortitz horietako bat jasaten duenean. Eta hori da Albertoren gertukooi gertatu zaiguna, azalpenik gabe geratu garela eduki duen istripu tontoaz enteratu garenean.

Alberto Legarreta zamudioztarrak, zuek irakurleok AIKOR! aldizkari informatika atalaz arduratzen delako ezagutzen duzuenak, etxeko istripu bat izan zuen eta ordutik egoera larrian dago ospitalean.

Nik ez daukat zalantzarik laster gure aurrean edukiko dugula, bere barre algarak entzungo ditugula, eta eztabaida istilutsuetan murgilduta ikusiko dugula (baten bat burugogorra bada, hori bera baita). Baina une larri hau kontuan izanik ezinbestekotzat ikusten nuen hitz batzuk bere omenez idaztea, eta non AIKOR! aldizkarian baino hobeto.

Izenburuan agertzen diren bi hitz horiek Alberto ondoen definitzen dutenak dira: edozertarako BETI PREST. Gure koadrilatik informatika munduan sartu zen lehena izan zen bera, eta sasoi hartan beste guztiok ordenagailuak gugandik urrun zeudela pentsatzen genuen, baina denboraren

poderioz batzuk gehiago, besteak gutxiago, denok murgildu behar izan gara teknologia berrietan. Eta mundu hori eta bere hizkuntza guretzat hain berri eta urrunak direnez, arazotxoren bat eduki dugun bakoitzean, hor egon da beti Alberto laguntzeko prest: ordenagailua martxan jartzeko, birusak kentzeko, apurtuta zegoena konpontzeko, inondik inora ulertzen ez dugun programaren baten funtzionamendua azaltzeko, ordenagailuari tarjeta berri bat jartzeko...

Antzerako gauza bat gertatu zitzaion AIKOR! aldizkariari. Bere lehen urratsak ematen ari zenean, aldizkarian informatikari buruzko atal bat sartzea erabaki zen, lan horretarako buruan inor eduki gabe. Niri baten bat topetako esan eta euskaraz hilerorri bat idazteko proposamenarekin joan nintzaionean, zein uste duzue izan zela bere erantzuna? "Por supuesto", honetarako ere prest!, bere euskara idatziaren maila nola-halakoa zela jakin arren. Eta hileroko bete-behar horretan aritu behar izanak, kezkatu egin zuen bere euskara mailaz, EGArako ikasketak egiten hasi zelarik, nahiz eta bere lanerako titulu horren beharrik izan ez. Hala ekin dio Internet, birusak, web orri interesgarriak.... eta halako gai interesgarriei buruz idazten gaur arteko ale guztietan.

Benga Alberto, animo, hemen gaituzue zure zain, Elo, Joane, familia, lagu-



nak, parrandak, kupeletako sagardoa, Iraultzakoak, lanekoak, Athleticetako partiduak, Lagatzu, AIKOR!... zurekin batera bizitzako poz eta negarrez gozatzeko. Eta bide batez, goiko argazkian betetzeke agertzen den zure bizitzako orri zuri hori hainbat pasarteekin bete dezazun. Laster arte.

Gugan zaude uneoro eta gu zurekin gaude.

Jon Ander Rola



Iñaki GAMINDE,
Hizkuntzalaria

"Behar handia dago bertoko euskara didaktizatzeko"
(GARA, 2004-11-05)

Bilboko euskarak badu inguruko herrietakoarekin lotura?

Bilbon euskara bi egiten dira. Artxanda aldean, Txorierriko euskara egiten da gutxi gorabehera, Zamudio edo Sondikakoa —hor mugan daude—, eta gero besteetan egiten dena dago, Begoñan, Buian eta Larraskitun, eta hori da Arakaldoraino heltzen den euskara, Basauri, Arrigorriaga... Arakaldon egon naiz eta 80 urteko gizon batekin berbetan, hemengo berbak eta erak erabiltzen zituen.

"Behar handia dago bertoko euskara didaktizatzeko".
(BIZKAIE! Bizkaierazko Aldizkari Elektronikoa, 2004-11-15)

Bilbotarron Euskararen zuzuan kalean dago daborduko. Edozelan be, seguru buruan beste proiekturen bat daukazula bueltaka.

Bai, orain Derioko gazte-talde bategaz batera nabil lanean. Beste alde batetik, lehenago esan dodan legez, Bakion urte biko proiektu bat euki dogu eta orain DVDak urtengo dau eta hiztegia be amaitu dogu.

Toti MARTINEZ DE LEZEA,
Idazlea

"Jendea aspertuta dago eguneroko errealitatearekin".
(BERRIA, 2004/11/07)

Sustatu eztabaidagunean aipatu da kontua, eta gorabeherak izan dira, ea zein den jatorrizkoa benetan, gaztelaniazkoa ala euskarazkoa

Ez gaitezen ergelak izan: nik gaztelaniaz idatzi dut, eta eleberria gaztelaniaz aterako da, nik nahi dudanean. Eta gauza bat esango dizut, gainera: euskal idazleek gaztelaniaz argitaratzen baldin badute, ez dakit nik zergatik ezin dudan euskaraz argitaratu. Norbaitek esan du diruarekin lotutako arrazoiak ditudala hori egiteko. Ulertuko duzun bezala, arrazoa dirua balitz, ez nintzateke batere kezkatuko. Zuzenean gaztelaniaz argitaratuko nuke.



Arrazoi pertsonalengatik egin dut, gogoia daukadalako, eta euskarazko eleberri bat edukitzeko gogo handiak nituelako, eta hau delako modu bakarra. Ez dut arrazoi gehiago eman beharrik.

TOPAGUNEA

"Diru laguntzak banatzeko erabiltzen diren irizpideak berrikusi egin behar dira"
(BERRIA, 2004/11/19)

"Diru laguntzek azkeneko urteetan ez dute igoerarik izan eta denbora horretan, gainera, hedabide gehiago sortu dira. Ondorioz, bakoitzarentzat diru gutxiago dago. Horrek zalantzan

jarri ahal ditu komunikabideak. Bestetik, diru laguntza deialdiak oso berandu kaleratzen dituzte. Ebazpenak iraila baino lehen ez dira irteten, eta ordainketak, ondorioz, hurrengo urtean egiten dira. Azkenik, diru poltsa banatzeko erabiltzen diren irizpideak ere berrikusteko garaia dela uste dugu. Irizpide horiek sektoreak dituen beharretara egokitu behar dira; izan ere, une honetan ez baitiote errealitateari erantzuten".

Txorierriko VIII. Euskara Eguna Lezaman izango da



Euskara Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatuko da, eta gurean ere hainbat ekitaldi izango dira hilaren 2, 3, 10 eta 11n. Txorierriko Euskara Egunaren VIII. edizioa beteko da aurten, eta Lezaman jorratuko dira ekitaldi nagusiak.

Abenduaren 2an, osteguna, Kiki, Koko eta Moko pailazoez saioa eskainiko dute Lezamako frontoian goizeko 10etan. Ekintza hurrezkuntzako eta I. zikloko umeei zuzenduta dago. Institutu eta Politeknikako ikasleek ere Euskara sencilloaren manifestoa antzezlanak ikusteko aukera izango dute Derioko pilotalekuan, eguerdiko ordu-batetik aurrera.

Ostiralean, II. eta III. zikloko umeentzako arrantzale-jokoak egongo dira, Kulkiren eskutik. Jolasak goizeko 10etatik 12etara bitartean izango dira Lezamako frontoian.

Horrezaz gainera, panpina mugikorrek, potatoak, aurpegi margotze, collage eta mozerro tailerrak ere egongo dira.

Abenduaren 10ean, ostirala, Kirola euskaraz mahaingurua egingo da arratsaldeko 7etan kultur aretoan. Txorierriko kirolari ezagunek hartuko dute parte bertan. Ostean, pilota partida bi jokatu dira, bertsolari eta guzti.

Larrabetzuko Musika Eskolak kontzertua emango du larunbatean, 18:00etan, Lezamako plazan. Eta Kutxidazu bidea, Ixabel antzezlanak izango da iluntzeko 7etan frontoian. Aldez aurretik hartuz gero, 2 euro balio izango dute sarrerak, eta egun berean 3 euro. Antzezlanaren ondoren, kalejira egingo dute Bertokokoek herriitik, eta txapela txapelketa ere egongo da, Zorritzetan Euskara Elkartek antolatuta.

Mankomunitateko Euskara Zerbitzurako logotipo eta eslogan lehiaketa

Euskara Zerbitzua herritarren artean identifika eta sinboliza dezan logotipo eta eslogan lehiaketa antolatu du Txorierriko Mankomunitateak.

Nahi duten guztiek parte hartzeko aukera izango dute, eta lanek Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzua irudikatu beharko dute. Lehiakide bakoitzak logotipo bi eta eslogan bi aurkeztu ahal izango ditu, gehienez. Lanak aldez aurretik argitaratu gabeak eta saritu gabeak izan beharko dira, eta euskarri informatikoan (jpg formatuan) aurkeztuko dira. Halaber, gutun itxian eramango dira, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa agertuz, baita erreferentzia ere bai (Erref. Logotipo lehiaketa/eslogan lehiaketa).

Lanak Euskara Zerbitzuan, postaz (Herriko Plaza, 3, 48160-Derio) edo e-mail baten bidez (euskera@txorierrimank.org) aurkeztu daitezke abenduaren 15era arte. Txorierriko Mankomunitateko Euskara eta Kultura Batzorde Informatiboak osatuko du epaimahaia, eta 200 euroko sari bi emango dira: bata logotipo irabazleari eta bestea esloganaren irabazleari. Aurkeztutako lanak aukeratzekoan, begietarako erakargarritasuna eta komunikatzeko gaitasuna hartuko dira kontuan.

Deriotik Saluora

Abenduaren 4tik 8ra bitartean, Saloura bidaia antolatu du Derioko Udalak. Bidaia 150 euro balio izango du eta Port Aventura jolas-parkea bisitatzeko aukera egongo da, 22,5 euro gehiago ordainduz gero. Hilaren 7an Bartzelonarako txangoa ere egingo da. Hiru izarreko hotel batean egonaldia eta pentsio osoko erregimena daude prezioaren barne. Argibide gehiago Udaletxean.

Kataluniako ordezkapena Loiun



Argazkia: Joseba Gotzon

Urriaren 25etik 31ra bitartean, Euskal Herria-Catalunya I. Kultur Astea ospatu zen Bilbon. Ekitaldi nagusiak bertan izan arren, Loiun ekintza bi egin ziren, Loiuko Lagunak Kultura eta Kirol Elkartek antolatuta.

Urriaren 30ean, larunbatean, Lleidako Didí pailazoak (Jordi Baiget) saioa eskaini zuen hotelean. Bertaraino 50 bat ume hurbilduziren, eta pailazo-sudur bana hartu zuten oparitutzat. Jordi Baiget Mugarik Gabeko Pailazoak gobernu kanpoko erakundearen kidea da.

Vicente Arteagoitia Loiuko alkateak eta Fermin Garin Kultura zinegotziak harrera egin zion La Florestako udalbatzaren ordezkapenari igandean. La Floresta Les Garrigues eskualdean dago, eta duela 15 urtetik hona Euskadi-Catalunya Kultur Astea ospatzen da bertan. Ohorezko aureskua dantzatu ostean, Lleidako Grallerseko bandak kalejira egin zuen herritik.

Loiuko Lagunak Kultura eta Kirol Elkartea ekainean sortu, eta harrezkero pala eta pintxo txapelketak antolatu ditu herriko jaietan. Duela gutxi paddle lehiaketa ere egin dute.

Artxanda golf zelaia- ren eraikitzeke lanak salatu dituzte

Artxanda golf zelaia-
ren eraikitze lanek ingurumenean sortzen dituzten kalteak salatu ditu Gangurenen aldeko herri ekimenak. Beste alde batetik, lurak legez kanpo pribatizatu zirela gogorarazi zuen. Golf zelaia Diputazioaren lurretan egiten ari dira, foru agintariek sustatzaileekin egindako lur trukearen ondorioz. Herri ekimenak dioenez, lur trukea legez kanpoko izan zen, ez zelako lehiaketa bidezko adjudikaziorik egon. Arrazoi horregatik, orain urte bi, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuten. Errekurtso horrek aurrera egin arren, eraikitze lanek aurrera jarraitu dute. Hala ere, salatzaileek uste dute behin betiko ebazpena udan emango dela. Aldekoa bada, proiektua bertan behera utzi beharko dute.

Beste alde batetik, ingurumenean sortzen ari diren kalteak ere aipatu dituzte. Azaldu dutenez, golf zelaia eraikitzeko, arbola asko bota dituzte eta lur mugimendu itzelak egin dituzte, instituzioek ezer ere egin barik.

Gangurenen aldeko herri ekimenak lurrok berreskuratzeko eskatu dio Diputazioari, eta hori posible ez bada, ingurumena babesteko, behintzat. Enpresari publizitate engainagarria ez erabiltzeko eskatu dio eta gizarte eragileei Gangurenen alde lan egiteko deialdia egin die.



Txorierriko autobiko beste sarbide bat zabali.– Azaroaren 19an, Txorierriko autobiko sarbide berria inauguratu zen. Sarbide horrek Lezama, Zamudio eta Parke Teknologikoa lotzen ditu, Torrelarragoiti industriadetik pasatu beharrik izan gabe. Aurreikuspenen arabera, egunean 10.000 ibilgailu pasatuko dira bertatik. Obretan 4,93 milioi euro inbertitu dira.



Argazkia: Gela Pedagogikoa

Bizikletaren II. Jaialdia Derion.– Urriaren 31n, igandean, Garraiorako eta Aisialdirako Bizikletaren jaialdia izan zen Derion, Gela Pedagogikoa Kultura eta Kirol Elkartek antolatuta. Hainbat txirrindulari eta zale bildu ziren Seminario ondoan, eta haien artean Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen.

Txorierriko XIX. Gabon Kantu Jaialdia prest

Urtero lez, Txorierriko Gabon Kantu Jaialdia izango da Txorierrin abenduaren 17tik urtarrilaren 6ra bitartean, Derioko Ipar Alde abesbatzak antolatuta. Aurten XIX. edizioa beteko da, eta bertan Bizkaiko 18 abesbatzek hartuko dute parte.

Txorierriko elizetan zazpi kontzertu eskainiko dira: abenduaren 17an, Larrabetzun, 20:30etan; 18an, Lezaman, 19:30etan; 19an, Sondikan, 12:30etan; 23an, Loin, 10:30etan; 30ean, Zamudion, 19:30etan, eta urtarrilaren 5 eta 6an, Derion, 19:30etan eta 12:30etan, hurrenez hurren.

Creditrans txartela jarriko dute Alde Zaharra–Lezama trenbidean

Alde Zaharra-Lezama trenbidea hartzen duten txorierritarrek creditrans txartela erabiliko dute maiatzetik aurrera. Horrela azaldu du Alvaro Amann Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburuak.

Ekimen pilotua izango da Txorierrikoa, eta txartelaren erabilera bideragarria den jakiteko balio izango du. Creditrans txartelak hainbat garraio hartzeko aukera emateaz gainera, joan-etorrien prezioak merkeagotu egiten ditu.



Bost pasagune kenduko dituzte Bidarte-Lezama trenbidean.– Eusko Jaurlaritzak hjakinerazi duen bezala, bost pasagune kenduko dira Bidarte-Lezama trenbidean: 8/970, 9/202, 9/283, 9/502 eta 9/781 kilometroetakoak. Horrezaz gainera, autoentzako gaineko pasabidea eraikiko da. Pasabidea Zamudioko Ugaldeguren industrialderako lotura da. Egitasmoa Eusko Jaurlaritzak eta Zamudioko Udalak lortutako akordioari esker egingo da. Eusko Jaurlaritzak milioi bat euro baino gehiago jarriko ditu beharrotarako.

Klikatu Larrabetzu proiektua abian

Klikatu Larrabetzu joko interaktiboa martxan jarri du Arrekikili euskera alkarteak. Jokoa umeei zuzenduta egon arren, gazte zein helduei be ondo etorriko jake herriko auzo eta baserriak sakonean ezagutzeko.

Josu Galarzak Larrabetzuko baserrietako argazkiak egin zituan aspaldian, eta lan honetan oinarritu da proiektua. Jokoa bukatzeke dago oraindik, baina ildo nagusiak zehaztu dira. Horrela, bada, herriko mapa topako dogu bertan, eta proba batzuk gainditu ahala auzo bakoitzeko baserrien izenak agertuko jakuz. Horrezaz gainera, Larrabetzun zehar ibilaldi txikiak egiteko asmoa du Arrekikilik, Guraso Elkartegaz batera. Baserrietako bizilagunei hainbat datu galdetu, eta fitxa batzuk bete beharko dabez umek. Informazio horrekin erakusketa txiki bat egin gura dau Arrekikilik.

Beste alde batetik, Larrabetzu auzoz auzo-baserriz baserri argazki erakusketa izan zan Kultur Etxean, urriaren 20tik 24ra bitartean. Jon Galarzak herriko baserriei ateratako 110 argazki batu ziran bertan.

Testua: Imanol Alvarez

Udaltalde 21 ek partaidetza foroak antolatu ditu Txorierriko diagnostikoa osatzeko

Txorierriko Tokiko Agenda 21 gure herrietako diagnostikoak egiten dabil, eta abenduan eta urtarrilean partaidetza foroak antolatu ditu diagnostiko horiek osatzeko. Foroen helburua izaten da herritarrek euren herriari buruz duten iritzia ezagutzea eta etorkizunerako konponbideak guztion artean topatzea. Abenduaren 2an, bilera egingo da Lezamako Kultur Aretoan, 19:30etan; 13an, Zamudio dorrean, 19:00etan; 14an, Sondikako Gaztetxean, 19:00etan; 15ean, Derioko Kultur Aretoan, 19:00etan; 16an Loiuako Lauroeta Ingurugiro Gelan, 19:00etan, eta, azkenik, urtarrilean, Larrabetzun.

Asuako ibaiko ur beltzak estaziora kanalizatzeko lanak amaitu dira

Asua ibaitik datozen ur beltzak Lamiako-Galindoko garbiketa-sistemara kanalizatzeko lanak, iaz hasitakoak, joan den urrian bukatu dira. Lanak zati bitan egin dira. Alde batetik, Txorierriko interzeptorearen bigarren fasea, Sangroniz eta Arriaga bitartekoa, egin da. Eta beste alde batetik, interzeptore hori Sangronizetik Lezamara eta Udondotik Lamiakora eraikitako zatiekin lotzeaz gainera, ura ponpatzeko

gunea jarri da. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak 13 milioi euro inbertitu dituzte beharrotan.

Asua Bizkaiko ibairik kutsatuenetarikoa bat da, eta bertatik 19 puntu beltz kenduko dira, azpiegitura hidrauliko horri esker. Saneamendu-sareak Erandio, Loiu, Sondika, Derio, Zamudio eta Lezamako etxeetako eta industrietako isuriak bilduko ditu.

Agus Barandiaran, Urgabe taldeko kantaria

"Bide berriak zabaltzeko ordua da"

Urgabe taldea *Edan hemendik* diskoa aurkezttera etorri da Zamudioko San Martin Jaietara. Hamar urteren ostean norabidea aldatu, eta rock estiloa ez ezik eurek egindako abestiak ere proposatzen dizkigute hirugarren lan horretan. Agus abeslari eta taldearen sortzailearekin egon da solasean Aikor! aldizkaria.

Testua: Itxaso Marina



Edan hemendik lana kaleratu berri duzue. Zer topatuko dugu hirugarren disko honetan?

Estilo aldetik bilakaera handia izan du taldeak. Zuzenean jotzen genituen abestiek osatu zuten lehenengo diskoa; bigarreanean pop eta trikiti doinuak batu genituen, eta hirugarren honetan, berriz, rock doinueta jo dugu. Ni izan ezik, taldeko beste guztiak berriak dira, eta bakoitzaren ekarpenak eragina izan du abestietan. Rock estilo hori da elkarlaren emaitza, beraz. Hamaika kantuk osatzen dute diskoa, eta oso errazak dira entzuteko, nire ustez. Dena dela, ahalegin du gara euskal folklorea ere presente egon dadin, eta trikitiarekin batera Leon Bilbao eta Juan Mari Beltranen albokak agertzen dira bertan. Maurizia Aldaiturriaga ere entzun daiteke kantu bitan.

Erromeriei lotutako taldea da Urgabe. Norabidea aldatzeko ordua da?

Bai, abestiak konposatzeari ekin nionean, oso argi neukan zerbait berria nahi nuela. Urte asko dira eszenatoki gainean gauza bera egiten, eta musikalki bide berriak zabaltzeko ordua dela pentsatzen dut. Orain arte Urgabe beste talde batzuen bertsioak egiteagatik egin da eza-gun, baina hemendik aurrera gure kantu propioak eman nahi ditugu ezagutzera. Pop-rockaren bidea hartu dugu horretarako, baina sustraiak galdu barik.

"Hemendik aurrera geure kantu propioak eman nahi ditugu ezagutzera"



Pozik emaitzarekin?

Oso pozik. Diskoaren grabatze lanak apirilean amaitu arren, urrira arte ez da argitaratu, bitarte horretan udako kontzertuekin ibili gara. Egia esan, apur bat ahaztuta geneukan, baina diskoa aurkezteko kontzertuak prestatzen hasi gara orain, eta hasieran bezala gustatzen zaigu... Disko bat grabatu ondoren, beti topatzen da zerbait, aldatuta hobeto egongo zena, baina guri ez zaigu halakorik gertatu... Orain arte ez, behintzat!

Gatibuko Alex Sarduik Kartzelako gutuna abestian egiten du kolaborazioa, eta hau singletzat hartu duzue...

Lehenengo diskoko *Portuko agua* abestian ere hartu zuen parte, Exkixun zebilenean. Lagunak gara eta, gainera, hainbat kontzertutan jo dugu elkarrekin... Abesti horretako leloa nahiko indartsua da, eta pentsatu genuen ondo geldituko zela nire ahotsa estrofetan eta berea leloan tartekatzeari. Berari proposamena egin, eta baietz esan zigun.

Abesti normal bat izango zen hasiera batean, baina single moduan ateratzeko egokia zela komentatu zuten Oihuka diskoetxearekin. Alexen "gantxo" ere hor zegoen... Kantu hori Zallako preso batek bidalitako gutun batean oinarrituta dago.

Eta Zamudio aukeratu duzue diskoa aurkezteko, zergatik?

Lotura handia daukagu Zamudio herriarekin, guri laguntzen dabilen bat bertakoa da eta. Kontzertu asko eman ditugu Zamudion, eta iaz abesti bat egin genuen Gazte Asanbladarentzat. Urgabe ondo hartzen dute beti zamudiotarrek... Geure abesti propioak aurkeztuko ditugu hemendik aurrera eta jendearen erantzunaren zain gaude...

Kontzertu horren ostean...

Ba, hainbat tokitan joko dugu: Bergaran, Gasteizko gaztetxean, Mungian... Durangoko Azoka ere laster egingo da, eta ikusiko dugu zer gertatzen den. *Kartzelako gutuna* sarritan jartzen dute irratian, eta hori seinale ona da, diskoetxearen esanetan.

Gazte batzuk Euskal Herriko arazoez ohartu eta borrokatzen hasi zirenetik 25 urte igaro dira jada. Txorierrin, herri askoren moduan, gazte erakundetik lagun asko pasatu dira 25 urte honetan: hasiera batean Jarrain, geroago Haikan, eta azkenean Segin.

Badira 25 urte



Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa ditugu mugatzat, eta helburu horretara heltzeko, hainbat aktibitate salatzeari gainera, beste hainbat aurrera eroan doguz: Aldi Baterako Laneko Enpresen behin-behinekotasuna, errepresioa eta EAJren faltsukeria salatzea... Eta horretan jarraituko dogu!

Baina halan eta guztiz be, bizi-bizirik gagoz oraindik, eta geure beharrekin segituko dogu.

Urteurrena dala eta, zenbait ekitaldi burutu doguz Txorierrin: argazki erakusketak herriko tabernetan, ibilbidea bizikletaz Sondikatik Larrabetzuraino, luntxa, pote-

oa, mobilizazioa eta afaria. Urte honeetan elkarrekin ibili garen lagun asko batu, eta geure borroka ospatu dogu. Seguru asko, 25 urte barru barriro batuko gara, baina hurrengo horretan Euskal Herriaren garai-pena ospatzeko izango da. Aurrera bolie!

Testua eta argazkiak: Txorierriko Segi

Beste alde batetik, hitzaldiak, gazte-eskolak, mobilizazioak eta jaialdiak be antolatu doguz. Eta geure nortasuna aldarrikatu dogu ekintza ugariren bitartez: EHNAren erabilera bultzatuz, gure herriaren eta Frantzia eta Espainiaren arteko mugak marraztuz, indar okupatzaileen aurkako dinamikak prestatuz...

Eta 25 urte honetan gorabehera batzuk be izan doguz, gure aurkako errepresioa itzela baita: atxiloteta piloa izan da, norberak bere buruari errua leporatzekak, legeak aurka jartzekak, torturak, guk antolatutako ekitaldiak zapuztu dira, gazteen guneak diren gaztetxeak bota dira...



"Saltsa guztietan ibiltzen naiz beti"

Futbola, karatea, 'full contact'-a, arraunketa... Hainbat kiroletan aritu da Eneko, "izan ere, sasoi onean egotea gustatzen zait, eta probatuz joan naiz neuretzako kirol egokia topatu arte". Sokatiran zerbait aurkitu du gogoia betetzen diona, eta Laukizko Gaztedi taldean gogotsu dabil Zamudiokoa. Gainera, animaliak zaindu, trikitia jo eta biologia ikasteko astia ere izaten du 20 urteko gazte honek.

Sokatira taldean urte bi egin dituzu, nondik datorkizu zaletasuna?

Gaztedi taldea orain urte batzuk desegin zen, baina entrenatzaileak aipatu zidan taldea berriro osatzeko asmoa zutela eta tiratzaileak behar zituztela. Momentu hartan arraunlari nenbilen Lutxanan, eta ezetz esan nion. Gero giro txarra sortu zen taldean, eta arraunketa alde batera uztea erabaki nuen. Ipurtarin hutsa naizenez, sokatiran animatu nintzen azkenean.

Beraz, zerbait egiteagatik sartu zinen taldean...

Ba, bai. Handik hilabete gutxira Assenera (Holanda) eroan gintuzten, Sokatira Txapelketara, eta proba horrek erakarri ninduen: kultura desberdineko jende asko, 16 soka aldi berean tiratzen... Harrezkero, gogor ibili naiz entrenamenduetan, eta A kategorian sartu naute. aurtan.

Oso kirol gogorra da, ezta?

Arraunean egitea baino gogorragoa! Kanpora irteten gara, eta entrenamenduak nahiz teknika zaindu behar ditugu aurkariaren mailari eusteko. Zein da teknika? Gerriarekin presioa egin, aurkariak nekarazteko, eta haiek erabat nekatuta daudeanean orduan tiratu. Horretarako ezinbestekoa da gogor entrenatzea: astean

"Nahiz eta gogorra izan, sokatira da gehien erakarri nauen kirola"

bost bider korrika egin, poleatik eskegi, zelaian tiraka ibili... Hala ere, kirol guztietatik hau da gehien gustatzen zaidana.

Zelako maila dago sokatiran, zure ustez?


Euskal Herrian oso altua. Talde guztiok teknika berdina erabiltzen dugu —presioa egin, besteak erre arte—, eta 10 minutuko tiradak izaten dira askotan. Atzerriko taldeek, berriz, hasiera-hasieratik hasten dira tiraka, eta lehenago nekatzen dira... Orduan, erraz ekartzen dituzu zeure eremura.

Zein txapelketatan hartu duzu parte?

Euskadiko Txapelketan, Bizkaiko Torneoan eta Europa zein Munduko Txapelketan. Sokatira talde on bat lortzeko, lau urte pasa behar izaten direla esaten da, baina aurtengoa gure bigarren urtea dela kontuan hartuta uste dut nahiko emaitza onak lortu ditugula. Beteranoekin ibili gara lanean, eta lau urteko epe hori laburtu dugu: Bizkaiko Torneoa irabazi, eta Euskadiko Txapelketan bigarren postua lortu dugu aurtan; gainera, Munduko Txapelketan laugarren geratu ginen.

Kirola albo batera utziko dugu. Trikitia ere jotzen duzu...

Hiperaktiboa naiz! (barreak). Ezin izaten naiz geldirik egon: ohetik altxatu, ikastera joan, etxera bueltatu, trikitia jo, animaliak



zaindu, entrenatzera joan... Saltsa guztietan ibiltzen naiz beti.

Non duzu baserria?

Derion. Ahuntzak, konejuak, olioak eta beste animalia batzuk dauzkat bertan. Baserriko giroa izugarri gustatu zait txikitik.

Asteburuak aprobetxatuko dituzu atsedent hartzeko, ezta?

Bai, zera! Parranda egiten dut. Hori bai, lehiaketa garaian formal-formal ibiltzen naiz.

Eta zertan ez zara ibiliko hemendik aurrera?

(Barreak) Ba, ikasketak amaitu eta lana topatzeko itxaropena dut. Animaliekin ere jarraitu nahi dut, baita sokatiran ere. Gure entrenatzaileak berrogeitaz urteak ditu, eta oraindik tiratzen segitzen du... Horrela ibiltzea gustatuko litzaidake niri adin horretan! Eta Euskadiko zein Munduko Txapelketak inoiz irabaziz gero, poz-pozik.

Testua: Ixaso Marina



Rochesterrean egindako lehiaketa batean

Zelango Txorierrri gura dogu etorkizunean?



Azken urteotan aldaketak ugari izan dira Txorierrin: aireportua eraldatu da, industrialde eta etxebizitza gehiago eraiki dira, errepide eta autobideak egin dira... Beste alde batetik, beste azpiegitura proiektu batzuk planifikatzen dabiz martxan jartzeko. Ekologistak Martxan taldeak *Euskal Herria nora zoaz? Retos sociales y ambientales para la sostenibilidad* liburua argitaratu barri dau. Dozena bat idazlanek osatzen dabe liburua, eta gurean nahiz Euskal Herriko beste herri askotan izaten diran aldaketak aztertzen dira bertan. Txema Pico (Lurralde Antolaketa) eta Iñaki Barcena (Energia) txorierritarrek parte hartu dabe lan horretan. Biak elkarrizketatu doguz euren kezkak eta eritziak ezagutzeko.

Txorierrri asko aldatu da azken urteotan. Zeintzuk dira, zure ustez, aldaketarik handienak?

Txema Pico.- Azken hogeitaz urte honetan bi izan dira aipagarrienak: alde batetik, mota guztietako kutsadura etengabe joan da hazten eta hazten; bestetik, eskualdearen identitatea eta nortasuna galduz doa.

Eta zergaitik izan dira aldaketok?

Iñaki Barcena.- Ez dira, bakarrik, hemengo dinamika. Hazkunde ekonomikoaren logika instituzioen eta jende arruntaren pentsamoldeetan txertatu da, elite ekonomikoen eraginez. Logika hori irizpide printzipal eta nagusi bakarra bihurtu e da. Hazkunde ekonomikoa lortzeko, obra erraldoiak motore garrantzitsu bat dira,

antza. Baina galtzen doguzan gauzak inoiz ez dira kontuan hartzen.

Aldaketa honeek zer eragin eduki dabe txorierritarren bizimoduan? Hobeto bizi gara gaur egun?

T.P.- Nire ustez, hazkunde ekonomikoa-gaz eskualde honetako bizi kalitatea okertu egin da. Hazkunde hau auto, kamioi, hegazkin edo industrialdeen neurrian egiten ari da. Interes ekonomiko pribatuak hiritarren beharrezanetan ganetik ezarri dira.

Txorierrri Bilbo Metropoliaren barruan dago. Handik zer onura eta arrisku datoz?

I.B.- Onura gitxi. Zoritxarrez, oreka eta konpentsazioak egon beharrean, badirudi

“Konpentsazioak eta oreka egon beharrean, Txorierrriko lurrak Bilboko erdigunearen zerbitzuan jartzen dira”

Txorierrriko lurrak Bilboko erdigunearen zerbitzuan jartzen dirala. Horrela bakarrik ulertu lei azken urteotan eskualde honetan ikusi dogun paisaia aldaketa. Lurrak eta espazio libreak negozioak egiteko aukeratzat baino ez dira hartzen.

Eta eskualdean egin nahi diran proiektuei buruz zer esan lei?

T.P.- Azken urteotan garatu diran proiektu erasokorrak (aireportua, korridorea, hazkunde industrialak...) eta etorkizunerako iragarrita dagozanak (iparraldeko saihesbidea, kamioi aparkalekuak, industrialde barriak...) eredu bardinekoak dira, zoritxarrez. Nire ustez, ustezko hazkunde horrek ez deusku ezer onik ekarriko; Txorierriko sostengarritasuna, oster, arrisku handiagotan jarriko dabe.

Adituen ustez, trafikoa da Txorierriko arazorik larrienetariko bat. Zelango neurriak hartu leiz konponbidean jartzeko?

I.B.- Lehenengo eta behin, hazkundearen logikagaz amaitu behar da, errepide eta autobide gehiagorik auto eta kamioi gehiago etortzen dira eta. Nire ustez, lehenengo neurria trafiko azpiegitura barrien moratoria bat litzateke: herritarrei kontsulta egitea eta ondo pentsatzea zer egin behar dan eta zer ez. Eta, duda barik, garraio publikoa eta motor bakoa bultzatu behar dira.

Horrez aparte, zeintzuk dira Txorierrin dagoen arazo ekologikorik handienak?

I.B.- Hori jendeak esan beharko leuke, ez aditu batzuek. Lurraren erabilera eta horren inguruan dagoen espekulaziorako grina oso kontu larria da. Diruaren presioa-gaitik ezin da edozein proiektua onartu. Ganera, beti esaten deuskue horrela lanpostuak sortzen dirala, baina tokiko proiektu ekonomiko eta ekologikoek askoz lanpostu gehiago sortzen ditue; hori bai, etekin pribatua txikiagoa da.

Hain larria da etxebizitzarekin dogun arazoa?

T.P.- Bai, duda barik. Txorierritar gazteak etengabe joaten dira beste eskualdeetara, hemen ez daukelako eurek erosteko moduko etxebizitzarik, baina era berean, milaka



Azken urteotako paisaia aldaketa kezkatzekoa da, Txema eta Iñakiren ustez. "Lurrak eta espazio libreak negozioak egiteko aukeratzat baino ez dira hartzen".

pisu egiten dihardue eta egin gura ditue berton. Lehen esan dodan legez, honegaz be espekulazioa da nagusi, ez dira kontuan hartzen bertoko gazteak eta, horren ondorioz, Txorierrin geure nortasuna galtzeko dogun arriskua.

Hazkundera eta garapena planifikatzearakoan zeintzuk izan beharko lirateke, zure ustez, kontuan hartu beharreko ezaugarriak?

T.P.- Lehenengo eta behin, instituzio publikoek eta hiritarrek izan beharko leukie protagonista nagusiak. Udalen inplikazioak be askoz handiagoa izan beharko leuke, hiritarren partehartzea babestuz eta bultzatuz. Jakina, hemen be merkatuak dinona eta norbanakoaren interes ekonomikoa kontuan hartu behar dira, baina bigarren lerro batean. Gaur egun, alderantziz gertatzen da, zoritxarrez.

Txorierriko Mankomunitateak Tokiko Agenda 21 martxan jarri dau udalerriguztietan. Zelan baloratzen dozue hori?

I.B.- Aukera polita izan leiteke, baita erakusleirio berde bat be. Beste leku batzuetan, pasa dan hamarkadatik martxan ipini diran agenda horreek aztertzen badoguz, adibide onak eta txarrak ikusiko dira. Txorierrin be badagoz alkate, zinegotzi, teknikari eta herri talde batzuk prozesu honek ilusio handiz ikusi dituenak, baina baita mesfidantzaz eta distantzia handiz hartu dituenak be. Tresna barriak eta interesgarriak izan leitekez, baina horretarako beharrezkoa da herritarrek parte hartzea eta euren proposamenak interes ekonomiko nagusien ganetik ipintzea.

*Testua eta argazkiak:
Larrabetzuko Geroa elkarteak.*

"Txorierri taldeak lanak emango ditu hemendik aurrera!"



Azaroaren 1ean Euskal Herriko Harri-zulatzailen Banakako Txapelketaren finala jokatu zen Gallartan, eta Iñigo Aurrekoetxeak irabazi zuen. Iñigo derioztarra da (hala ere, laster joango da Zamudiora bizi izatera), eta Txorierri taldeko harri-zulatzaila da. Final horretan 4 zulo eta 4 zentimetroko marka egin zuen eta txapela kendu zion Fertxi Garciari, bat baino gehiago aho bete hortzekin utzita. AIKOR! aldizkariak zorionak emateko aukera izan du.

Nola ikusi duzu zeure burua txapelketan zehar?

Ondo. Hasieratik beharrean erabat sartuta ibili nintzen, eta serieen artean hartutako atsedenaldietan ondo errekupe-ratu nintzen.

Fertxi Garcia faboritoa zen eta zeuk irabazteak ezustean harrapatu du hainbat jende. Zeu ere harrituta?

Fertxi txapelketa bi irabazi ditu, eta harekin lehiatzen nintzen lehenengo aldia zen. Jendeak, beharbada, horregatik pentsatuko zuen bera nagusituko zela. Nik banuen marka hori egiteko itxaropena, baina behin ere ez zitzaidan burutik pasatu halako alde handia aterako niola: zulo bat eta 2 cm. Parean ibiliko ginela pentsatzen nuen.

Kirol honetaz ezer ez dakigunontzat... Zertan datza proba hori?

Proba 20 minutuan zeinek harri gehien zulatu izaten da. Zuloak kareharrian egin behar izaten dira barra-kolpeka. Zulo bakoitzak 10 cm-ko sakonera izan behar du. Bakoitzak bere teknika izaten du. Nik, adibidez, 20 kolpeko serie bat egin, eta atseden hartzen dut 8 segundoan. Gero, 8 kolpe eman eta 12 segundoko atsedenaldia hartzen dut... Kolpeak indarrez ematea eta denbora ondo erregulatzea, hor dago koska.

Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzen?

Lagun batzuk La Arboleda elkartearen ibiltzen dira harri zulatzeko, eta iaz Juanan Arbulo eta biok berotu gintuzten probatzeko. Gustatu egin zitzaigun, eta eurekin hasi ginen. Aurrerago, Zamudioko Txorierri Elkartasuna herri kirol taldea sortu genuen.

Ez da ohiko kirola Txorierri. Arraro samar egiten da...

Bai, baina kirolaren gogortasunak erakarri ninduen. Gainera, oso kirol ikusgarria da.

Eta gutxi ezagututakoa. Zerbait egin

*“Behin ere ez zitzaidan
burutik pasatu halako
alde handia aterako
niola Fertxiri”*

beharko da bultzatzeko, ezta?

Txorierrira ekartzeko ahaleginetan gabiltza. Ligako txapelketa bi egin dira Zamudion eta Derion, eta ikusmina piztu du jendearengan. Berez, Meatzalde eta Enkarterriko kirola da, eta zalerik gehien bertan daude; hala ere, zaletasuna zabalduz doa beste herri batzuetara. Uda honetan Euskal Herri osotik ibili gara, eta asteburu bakar batean lau saio egin ditugu askotan... Prentsan eta telebistan agertzeak ere eragina du horretan.

Zelako maila dago harri-zulatzailen artean, zure ustez?

Lehiaketa estua izan da aurtengoa, maila altua dago. Galdames eta Trapagako taldeak oso onak dira, eta banakako kategorian Fertxi, Juan (Gallarta) eta Aitor de la Concepcion (Txorierra) azpimarratuko nituzke... Eta orain neu! (barreak).

Txorierrin talde bi ditugu. Zelan ikusten dituzu?

Sondikakoa hasi berria da, eta ez naiz eurekin lehiatu... Desafio egin nien haie-tako lauk nik baino zulo gehiago ezetz egin, baina oraindik ez didate erantzun (barreak). Gu ondo ibiltzen gara binakako zein banakako kategorietan, baina abiadura faltatzen zaigu taldekako kategorian. Horretan saiatu behar dugu.

Desafioka? Hori aspaldiko kontua da.

Inigoren ustez, lehiaketa estua izan da aurtengoa, maila altua dago eta



Horrela jarraitzen duzue oraindik?

Bai, lehia handia dago harri-zulatzailen artean. Hala hasi zen, eta halaxe jarraitzen du kontuak.

Harri-zulatzailak Herri Kirolen Federazioan bazeudete?

Bai. Gaur egun badira harri-zulatzailak elkarrekin: Zugaztietakoa (La Arboleda elkarrekin) eta Meatzaldekakoa. Barrari dagokionez (gutxi gorabeherako ezaugarriak: altzairuzkoa, metro bi luze, diametroan 40 zentimetro, eta 12 bat kilo), neurri desberdinak erabiltzen dituzte, eta neurri horiek

bateratzeko asmoa dago aurtengoa, guztiok barra berdina izateko. La Arboleda elkarrekin Bizkaiko Txapelketa antolatzen dute, eta Meatzaldekakoa Euskal Herrikoa. Gure taldea azken horren barruan dago; Sondikakoa, berriz, La Arboleda elkarrekin.

Euskal Herriko Banakako Txapelketaz gainera, zein lehiaketatan hartu duzu parte?

Iaz La Arboleda elkarrekin ibili ginen, eta Bizkaiko Taldekako Txapelketan bigarren postua lortu

genuen. Banakako kategorian hirugarren gelditu nintzen ni, eta Neguko Liga irabazi zuen taldeak. Aurten Meatzaldeko Harrizulataileak elkarrean sartu, eta bosgarren postua lortu dugu Euskal Herriko ligan. Euskal Herriko Binakako Txapelketan bigarren gelditu ginen eta taldekako kategorian hirugarrenak izan ginen.

Badago desberdintasun handirik kategoria horien artean?

Araudian ez, erritmoa aldatzen da. Taldekako kategorian abiadura handia hartu behar da, bata besteari atzetik zulatzen duelako; binakako eta banakako kategorietan motelago ibili behar da, kolpe zorrotzak emanez.

Zein kategoriatan ibiltzen zara eroso-en?

Binakakoa eta banakakoa gustatzen zaizkit, kolpea hobeto ematen dudalako. Taldekakoan estres handiagoa izaten dut.

Oso kirol gogorra da, zein ezaugarri bete behar dituzte harri-zulataileek?

Eskuetatik ondo ibili behar da, haiek dira eta gehien sufritzen dutenak. Sasoi onean egotea ere ezinbestekoa da, gorputz osoarekin lan egiten delako: sorbalda, besagainak, hankak... Horrezaz gainera, erresistentzia handia eduki behar da. Eta, jakina, teknika landu egin behar da, entrenatuz.

Eskuek asko sufritzen dutela aipatu duzu, zelan babesten dituzue?

“Binakako eta banakako kategoriak gustatzen zaizkit; taldekakoan estres handiagoa izaten dut”

Pilotariek bezala, hau da, esparatrapua eta takoak erabiliz.

Nolako entrenamenduak egiten dituzue?

Barrarekin asteen hiru egunetan entrenatzen gara, eta beste egunetan korrika egiten dugu edo gimnasiora joaten gara. Hasi berriek zuloak bukatzen ipintzen ditugu, apurka-apurka irakasten zaie teknika...



Īñigok txapela kendu dio Ferti Garcian



Eskuetatik ondo ibili behar dira harri-zulataileak, haiek dira eta gehien sufritzen dutenak

Harrobitik plazara



Harri-zulataileen kirola ezezaguna da askorentzat, baina tradizio handikoa Euskal Herriko hainbat tokitan: Deban, Ermuan, Markinan,

Azpeitian, Gallartan... Harrobieta eta meatzeetan sortu zen. Harri-zulataileek bertatik ateratzen zituzten burdingaia eta etxeak egiteko harritzarak, trebetasun eta indar handia erakutsiz. XIV. mendean bolbora heldu zen Mendebaldera, eta lanaren gogortasuna leundu zuen: handik aurrera zuloak egiten hasi ziren harrian bolbora sartu eta puskarazteko. Metxa handiekin leherrarazten zituzten eta modu horretan lortzen zituzten burdina eta harritzarak. Zuloak egiteko, burdinazko barra bat erabiltzen zuten, 15 eta 30 kilo bitartekoa.

Harri-zulataileen artean lehia handia zegoen, eta laster lana kirol bilakatu zen. Desafio egiten zen zeinek zulorik gehien egin, eta trabesak egiten ziren. Kirolariak 6 eta 12 cm bitarteko zuloak egin behar izaten zituzten 28 eta 83 cm bitarteko sakonera zuen harri batean. Zulatzeko, botileroek laguntzen zieten ura botatzen eta denbora neurtzen. Kirol hau 36ko gerra baino lehenago galdu zen.

60ko hamarkadatik hona hainbatetan saiatu dira kirola berpizten, eta azkenean 1999an lau talde osatzea lortu zuten Meatzaldean: La Arboleda, Gallarta, Abanto eta Ortuella. Hainbat urteren

*“Ahal dugunean
entrenatzen gara.
Hainbat lekutan dabil-
tza obrak egiten, eta
zulo batzuk egiteko
aprobetxatuko dugu”*

Non?

Ba, egia esan, Txorierrin ez dago leku askorik entrenatzeko... Batzuetan Gallartako Meatzari Museora joaten gara, baina normalean ahal dugun tokian entrenatzen gara: Zamudioko erreka bateko haitzetan... Hainbat lekutan dabil-tza obrak egiten, eta zulo batzuk egiteko aprobetxatuko dugu... Ea baime-na ematen diguten! Baserritarrek zoratu-ta egongo bagina bezala begiratzten digute, baina orain arte ez dugu arazorik izan.

Kirolariek elikadura zaintzen dute, zuek ere bai?

Ondo jatea ezinbestekoa da, baina ez dugu dieta berezirik egiten. Nik beti egin dut kirola: ziklismoa, gimnasioa... eta elikadura zaintzen dut horregatik, baina ezer berezirik ez.

Zein asmo duzu etorkizunari begira?

Maiatzean berriro hasiko da liga, eta taldean sartu berri direnak entrenatuko ditut bitartean... Ni ere gogor entrenatuko naiz, datorren denboraldian ahalik eta titulurik gehien lortzeko. Eta, batez ere, aurtengo titulua berriro lortzen saiatuko naiz, izan ere, beste guztiak atzetik izango ditut desafioka... Ea errekorra kentzen diodan Fertxiri! Nahiz eta oraingo honetan neuk irabazi, biok daukagu marka berdina: 4 zulo eta 4 cm.



Titulua berriro lortzen saiatu beharko da Iñigo, izan ere, beste guztiak izango ditu desafioka

*“Ez legoke txarto
Txorierrin nesken
talde bat sortzea”*

Txorierrin taldea iaz sortu zenuten 3 lagunek, eta momentu honetan 8 bat zaudete bertan. Nola erakartzen da jendea?

Pixkanaka-pixkanaka. Bat zu harri zulatzen ikustera etortzen da egun batean, beste bati botileroarena egiteko eskatzen diozu beste egun batean... Barrarekin saiatzen uzten diezu, eta animatuz doaz. Jendea erakartzea zaila da, kirol ezezaguna da. Hala ere, gazteak-eta probatzera animatzen ditugu ligako probetan edo erakustaldietan, eta gustatu egiten zaiela ematen du.

Neskei ere bai?

Batzuk animatzen dira. Ez legoke txarto Txorierrin nesken talde bat sortzea.

Taldeak aurrera egiteko laguntzarik?

Bilboko Olympus Sport nutrizio dendak arropa eman digu, eta laster harremanetan jarriko gara udalekin, ea diru laguntzaren bat jasotzen dugun. Hurrengo denboraldirako babesleak lortzen saiatuko gara.

Helbururik?

Hurrengo liga irabaztea, eta gogor entrenatzea, ahalik eta posturik onenean egiteko. Eta lortu egingo dugula uste dut. Lanak emango ditugu hemendik aurrera!

*Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Paco Estévez*

ostean liga antolatu, eta La Arboleda nagusitu zen.

Historia liburuetan gelditu dira harrobie-tan pasatako une latzak, baina harri-zulatzailak plazara irten dira berriro praktika honen gogortasuna jendaurrean erakustera. Eta ikusleak ez dituzte hotz uzten, ez.

Gaur egun 80 harri-zulatzaila baino gehiago daude Bizkaian. Gainera, La Arboleda eta Meatzaldeko elkarteak sortu, eta 11 talde osatu dira: Ortuella, Trapaga, Gallarta, San Fuentes, La Arboleda, Galdames, Errekatxo, Txorierrin, Sondika, Santurtzi eta San Gabriel.



Argazkiak: *Nosotros los vascos: juegos y deportes, IV* liburutik hartuta

Eten barik, Mikel Zarate

Honez gero txorieritarrok jakitun egongo gara aurten Mikel Zarateren omenaldiaren urtea dugula ekintza zein ekitaldi askotan parte hartzeko aukera izan dugulako. Baina, ohi ez bezala, gure idazle lezamarraren kultur eraginkortasuna ez da itzali, eta bera aitzakiatzat hartuta etengabeko sorkuntza ikusten ari gara gure inguruan. Izan ere, Mallabiako Gereaa auzoan irailaren 26an Mikeli egindako omenaldia eta bere bi libururen berrargitalpena esandakoaren adibide garbiak ditugu.

Aikor! aldizkariak horren testigantza ekarri gura izan du orrialdeotara, batetik Mallabiako Gereaa auzoko omenaldiaren irudiak agertuz eta, bestetik, berrargitaratutako liburuen nondik norakoak azalduz. Murgil gaitezen, beste behin ere, Mikelen munduan, kulturaz blai irtengo gara eta.




Mikelek abadetzako lehenengo urte biak Mallabiako Gereaa auzoan eman zituen. Bertan oso maitatu eta apreziatua izan zen. Mallabian egindako omenaldia eta argazkian agertzen den origarria ditugu estimu horren adierazle.



Mikel zenaren dantza zaletasuna asetzeko moduko agerraldia eskaini zuen Elgoibarko Haritz dantza taldeak Mallabiako pilotalekuan



Arratsaldeko saioari ekin aurretik, bazkari paregabek izan zen bertako txoko batean



Mikelen antzera bertsoak bota zituen mezan abadeak. Ugartetxea anaiak eta Xabier Amuriza ere bertotan aritu ziren mezan zein pilotalekuan

Ipuin antzeko alegi mingotsak



Hogeita bost urte bete dira Mikel Zaretek itxi gaituenetik. Hori dala-ta, Labayru Ikastegiak *Ipuin antzeko alegi mingotsak* berrargitaratzeko agindua emon eustan. Mikelek idatzi eban obrarik garrantzitsuenetarikoa dogu hau, eta edizinoa prestetako orduan, liburua hutsean baino zeozer gehiago eskaini ahal genduala ikusi genduan. Alegien balioa eta bere hizkera aberatsa erraz ulertzekoa zanez, eskoletan modu politean lantzeko aukerea eskaini gura genduan. Holan sortu zan unidade didaktikoa egiteko asmoa.

Liburua alegia-bildumea da, helburu didaktikoz egina. Izenburuak dinoan lez, ipuin antzera idatzita dagozan alegiak dira; “alegi mingotsak”, hain zuzen be. Alegietan sasoiko egoera erakusten da. Argi eta garbi ikusi geinkez Mikel kezkatzen eben arazoak zeintzuk ziran. Hiru dira, hain zuzen be, jorratzen dauzan gaiak: gai politikoak, euskerearen egoera azaltzen dabenak, eta giza gaiak.


Orain arte hainbat bider berrargitaratu da liburu hau, baina gaur plazaratzen dan edizino honetan ekarri barriak aurkezten dira. Edizino honen ekarriak hiru dira:

Alde batetik idazkerea gaurkotu da. Aldaketak egin dira, ortografian, deklinabidean eta aditzetan, bizkaiera landura ekarriaz, beti be Mikelek erabilten dauan hizkerea errespetauta.

Edizinoaren beste nobedade bat irudiak gehitu dirala da. Alegi bakotxe-ko irudi bat egin da, kontetan danagaz zerikusia daukana. Marrazkilaria Libe Urrutikoetxea urduliztarra izan da.

Eta hirugarren ekarria, unidade didaktikoa da. Irakasleak ikasleakaz landu daian egin da. Unidade didaktiko hau egiteko orduan, helburu bi izan dira nagusi:

1. lexikoa lantzea.
2. alegiak errazago ulertzeko ariketa aproposak prestetea. Alegien bidez, egileak bere sasoiko errealidadea erakusten deusku, eta ariketa honeekaz oraingo gizarteak sasoi haretako egoera ulertu daian lortu gura da.



Agortuta zegoen *Haurgintza minetan* liburua ere berrargitaratu egin da. Jesús Etkezarragak idatzi du sarrera

Ariketok arlo bitan banandu dira:

1. Dakizunetik ez dakizunera.- Lexikoa sakon lantzeko ariketak. Mikel Zaretek liburu honetan gaitasun berezia erakusten dau hizkerea erabilteko orduan, bere hizkerea aberatsa dan moduan, herrikoia be bada. Herrian batutako baliabide piloa darabil.

2. Ulertu dozu?- Testu-azterketa modu erraz batean egiteko ariketak. Hori lantzeko gaia, argudioa, sinbolismoa, personifikazioa, umorea, ironia...eta beste hainbeste baliabide aztertu dira.

Eta amaitzeko, Mikel Zarateren bizitzaren eta lanaren gaineko ariketak, eta alegigintzaren gaineko ariketak be prestau dira. Ipuin antzeko alegi mingotsak irakurri ostean, orokorrean emondako ezaugarriak aztertzen dira ariketen bitartez.

Ariketa guztiak erantzunakaz datoz, irakurleari eta batez be irakasleari lana errazteko. Kasu batzutan, erantzuna ez dator bere osotasunean. Mikelek interpretazinarako joera ixten dau, eta ez da erantzuna oso-osoan azaldu, bakotxak bere interpretazinoa garatu daian.

Eta amaitzeko, edizino honek Mikelen lan eder hau barriro be irakurteko aukera ona eskaintzen dauala esatea baino ez dago.

Testua: Idoia Alzibar Garitaonandia

Miren Elorriaga, Kili-Kiliko katekista urteetan



Miren Elorriaga Sangroniz Derion jaio zan orain 66 urte. Derio maitea 2004. Euskara arloa saria jaso dau oraintsu. Eta Zer egin dau Mirenek euskararen inguruan? Hori argitzen saiatuko gara. Berak dinoanez, "Ez da izan nire meritua bakarrik, jende asko ibili da horretan".

Zelan hasi zinan euskara emoten?

Orain 32 urte inguru izango zan, 1974. urtean edo. Katekesia hasi, eta Don Pedro abadeak deitu euskun gurasooi geuk emoteko. Batzarrean Josek, nire gizona zanak, konbentzitu ginduzan: *"Gure umeak euskaldunak dira, eta katekesia eta komunia zergatik izan behar dira erdaraz?"* Oso garai txarra izan zan horrelako gauzak egiteko. *"Badaukagu baimena katekesia euskaraz*

egiteko" -Don Tomasek esan, eta hasi ginan.

Kili-Kiligaz hasi ginan, ordu erdiz Kili-Kili eta ordu erdiz katekesia emoten genduan. Nik katekesia eta berak Kili-kili emotea proposatu eustan Josek, eta holantxe egin genduan urte batzutan. Don Pedrok eta Don Tomasek katekesirako erderazko fitxak hartu eta euskaratu egiten ebezan. Jose Mari ltuartek be emon eban. Bertatik pasatu diran guztiek "Kili-Kiliren katekesi" moduan ezagu-

"Don Pedrok eta Don Tomasek katekesirako erdarazko fitxak hartu eta euskaratu egiten ebezan"

tzen dabe.

Zein giro egoan hasierako haretan?

Euskaraz gitxi egiten zan. Gure edadeko jendeak gitxi egiten eban. Etxean euskaraz bai, baina kanpoan, koadriletan, erdaraz. Gizonak eta biok diskusiorik handienak horren ganean egin doguz. Jose oso euskaltzalea zan, eta berari esker hasi ginan. Berak umeakaz beti euskaraz egiten eban, nik ez hainbeste.

Zer dala eta Kili-kili?

Garai horretako umeek euskaraz ezer bere ez eben eukiten. Orduan Don Klaudio, San Antoneko parrokoa, hasi zan. Koitadua denboraren erdian kartzelan egoten zan. Hasieran betetzeko fitxak ziran, geroago komiki bihurtu zan, orain desagertuta dago.

Zuek arazorik izan dozue inoiz?

Ez, guk ez dogu inoiz arazorik euki. Kontrara, gurasoakaz oso ondo konpondu gara beti. Beti egon dira prest umeak eroateko, ekarteko... Alde horretatik oso ondo. "Autoridadeen" aldetik be ez genduan izan arazorik. Udaletxea behean eta eliza han goian egoteak lagundu dau beharbada.

Zenbat ume ziran?

Lehenengo urtean 6 ume, gero 15 inguru urtero, euskaraz ikasten. Astean behin egiten zan parrokian. Arrastiko 6etan hasten zan, baina Don Tomasek esaten euskun: *"itxi pittin baten, eurek alkar ezagutzeko, bakotxa leku batera joaten zalako eskolara"*. Nik kalkulitzen dot 400 edo 500 ume pasatu dirala euskaraz ikasita. Lehenengo urtean baserriko umeak ziran, gero kalekoak be bai.

Hasieran Txorierriko herri gehiagotan be emoten zan. Zamudion eta Larrabatzun bai gitxienez. Eskursino bat egiten genduan urtean behin danok batera, ume gitxi ziran eta.

Gero Deriokoak bakarrik joaten ginan. Kili-kiliren egunera joaten ginan. Gasteizera, Gernikara... Kurtso amaieran txitxiburduntzi be egiten genduan denok batera.

Pasadizorik kontatzeko?




"Ez dogu inoiz arazorik euki. Kontrara, guraso-akaz oso ondo kon-pondu gara beti. Beti egon dira prest umeak eroateko, ekarteko..."

"400 edo 500 ume pasatu dira euskaraz ikasita. Lehenengo urtean baserriko umeak ziran, gero kalekoak be bai"

Behin Gasteizen pasatu jatan ederra. Umeak gugaz autobus batean etorri ziran eta gurasoak bestean. Itzultzeko orduan gure autobusean lista pasatu ostean Josek, nire gizonak, esan eban: *"banoa beste autobusera ea danak dagozan"*. Nik esan neutsan: *"itxi bake-an, nagusitxoak dira eta joango dira"*. Baina berak ezetz, joan behar ebala. Umeak larritzen hasi ziran gure autobu-sean, eta urten genduan. Deriora heldu, beste autobusera joan, Josegatik galde-tu eta, gure autobusera bueltatu zala ...

Gasteizen lotu zan. Don
T o m a s e k



J e n d e
askok lagundu
dau. Maria Jesus, Ester,
Juan Miguel, Landaluze,
Luisma... Geroago katekesia hartu
ebanak laguntzen sartu ziren. Oxane,
Garbiñe, Jabi... PINera joa-
teko gura-



urteetan gogoerazo
deust: *"Miren, Miren, gizona galdu egin
dozula."*

Hainbeste urtetan jarraitu dozu?

soak prestatzen
ziran, giro oso ona egoten zan. Urte
baten esan eustien: *"Udaletxean suben-
tzioak emoten dabez euskeraren alde"*
,eta gu apuntatu egin ginan. Laguntza
horregaz eskursinoak egiten genduzan;
herri askotara joan gara, eta beti portiko

handi bat euki behar eben, edo frontoia.

Umeek ez dabe behar orain, eskolan
euskara emoten hasi ziranean ez zan
behar. Kili-Kili kendu genduan, baina
Maribelek fitxa batzuk prestatu ebazan
ibaia kaz, mendiakaz, dolmenakaz,... eta
abestiakaz.

Jaiak be egin dozuez?

25 urte pasatu ziranean. Diru pittin
bat euki, eta pintxo batzukaz eta edaria-
kaz egin genduan jaiak. Hasieratik ber-
tan egondakoak abisatu genduzan,
jende ezkondua, umeakaz, ... Jende
asko etorri zan, pilo bat. Danak
Deriokoak eta Kili-Kilin ibilitakoak.



Goian beude

Azaroaren 1ean Domu-santu Eguna ospatu, eta Txorierriko kanposantuetan jendetza handia batu zen gure artean ez dauden senideak gogoratzen. Kanposantu horietatik bi ditugu bereziak: Loiuko hilerri britainiarra eta Larrabetzuko Goikolexea auzokoa.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Loiuko hilerri britainiarra:

Etiket urrun, Txorierri betiko

Gogor borrokatu behar izan zuen Horace Young Britainia Handiko erreginaren kontsulak, bere aberkideek kanposantu duin batean betiko atsedena hartzeko. Bilbora 1859. urtean etorri, eta Abandoi-barreko hilerrian ikusi zuenak atsekabe ikaragarria eragin zion. Hainbat oztopo gainditu ondoren, britainiarren gorpuzkiak Loiura eraman ziren 1929an.

Youngek bildutako datuen arabera, Abandoi-barreko lurrak britainiarrentzako hilerritzat erabiltzen hasi ziren 1770. urtean; hala ere, hilerri zaharrena 1806. urtekoa zen. Hilobi horretan Archibald Selman kapitaina zeutzan, eta bere ondoan I. Karlstaldian parte hartu zuten armada zein marinako hainbat ofizial.

Ikuspegia negar egiteko modukoa zen: kanposantuak ez zuen hesirik eta hilerri asko hondatuta zeuden arpilatze eta uholdeen eraginez. Gorpu batzuk lurrazaletik agertzen ziren, eta sastrakak ziren nagusi bertan.

Bilbao-Tudela trenbidea egitera etorri ziren britainiarrek parte hartu zuten hilerria txukuntzeko beharretan, eta Gibraltarreko



Protestanteak lurperatzeko guneaz gainera, katolikoentzako toki ere badago Loiuko kanposantuan

“Hilarri asko hondatuta zeuden arpilatze eta uholdeen eraginez. Gorpu batzuk lurrazaletik agertzen ziren”

apezpikuak bedeinkatu zuen 1889. urtean, lan handiaren ostean.

Baina arazoak laster etorriko ziren. Bilboko Udalak eta Portu Agintaritzak kanposantua lekuz aldatzeko eskatu zuten, izan ere kaia handitu nahi zuten eta kanposantuak traba egiten zuten. 1908. urtean hilerria ixteko errege-ordena lortu eta Britainiako kontsulatuak kokaleku berria bilatzeari ekin

zion. Beste aukera batzuk aztertu ondoren, Loiun kokatu zen behin betiko 1929. urtean.

Kanposantuak berritasuna ekarri zuen: protestanteak lurperatzeko guneaz gainera katolikoentzako toki ere jarri zen. Hori dela eta, zeremonia bi ospatu ziren bedeinkatzeko: bata Nugent Hicks Gibraltarreko apezpikuak egin zuen maiatzaren 1ean, eta bestea aita Ojanguren Loiuko abadeak hilaren 12an.

Loiun egindako lehendabiziko hilobiratzeari Margaret Agnes Gaffney irlandarra izan zen uztailaren 12an. Abandoi-barreko hilerritik 721 gorpu ere ekarri ziren; 319 identifikatu barik zeuden. Geroago, II. Mundu Gerran hil ziren Alemania eta Ingalaterrako 201 hegazkinlari eta itsasgizon lurperatu zituzten bertan.

Baserritik sortu eta baserrira itzuli



Larrabetzuko Goikolexea auzoko hilerrian ez dago panteoirik, ezta hilarri arranditsurik ere. Hildako guztiak berdinak dira eta guztiek baserri-itxura egiten duten nitxoetan hartzen dute betiko atsedena. Bertan ez dago klaserik eta lore berak eskaintzen zaizkie guztiei. Filosofia horri jarraituta berritu zen kanposantua 1986. urtean.

Goikolexea auzoa elizatea zen aspal-dian, eta horrexegatik dauka hilerria San Emeterio eta San Zeledonio eliza ondoan. Hilerria XIX. mendean eraikin, eta hilobiratze guztiak lurrian egiten ziren garai hartan. Denboraren poderioz, kanposantua txikia gelditu zen auzotarrak lurperatzeko, eta eliza-juntakoek berritzeko ordua zela erabaki zuten duela 18 urte. Berritu bai, baina leku berezi eta erakarri bihurtu behar zen kanposantua.

Aita Mentxakak egin zuen diseinua: alboetan nitxoak eta erdian azken agurra emateko aldea. Horren ondoan Euskal Herriko hilarri bat jarri, eta diseinuari baserri-kutsua emateko egurra eta harria erabili ziren material moduan. Bi isurialdeko teilatua ere eraikin zen.

Hildakoen izenen orde, baserrien izenak irakur daitezke nitxoetan. Miguel Etxeandiak azaldu digun lez, ideia Jose Manuel Bizkarguenaga parrokoarena izan zen. “115 baserri eta etxeren izenak daude bertan. Orotara 182 nitxo izango dira,

izan ere batzuek bi erosi dituzte. Eta 18 komunalak dira. Azken horietan Denonak inskripzioa agertzen da”. Arrazoia oso erreza da: gorpuak ezin dira atera 10 urte pasa arte, eta tarte horretan familiako beste bat hilez gero komunal batean sartzen da. Epea bete ondoren nitxotik atera eta hezurak hezurtegira eramaten dira.



Antzinako Euskal Herriko hilarria mantendu dute kanposantuan

“115 baserri eta etxeren izenak irakur daitezke nitxoetan”

“Diseinuari baserri kutsua emateko egurra eta harria erabili ziren material moduan”


“nitxoetan loreak jartzea debekatuta dago, sikatzean ura bota eta egurra lorrintzen dutelako”

Nitxo komunalean zegoena familiarenean sartzen da orduan.

Horma-hilobietako lapidak egurrezkoak diranez, *“nitxoetan loreak jartzea debekatuta dago, sikatzean ura bota eta egurra lorrintzen dutelako. Lurrean ipintzen dira. Gainera, gure filosofiarekin bat egitea lortzen dugu horrela: hildako guztiak berdinak dira eta guztiek lore berak dituzte”*.

Leku polit eta baketsua da Goikolexeako hilerria, bai. Hain da berezia ezen ikusmin handia sortzen duen, eta asko eta asko hurbildu dira bertaraino inspirazio bila. Telebistak ere hainbat saio eskaini dio.

Larrabetzuko harrobia



Larrabetzuko frontoiak urteak izan arren, Olarreta pilota elkarteak gaztea da oraindik. Hala ere, dagoeneko nahiko ezaguna da herrian eta inguruetan. Angel Fernandez eta Karlos Garcia elkartearen sortzaileek euren ideia, asmo eta esperientzien berri eman digute.

Noiz sortu zen elkarteak gaur egun eza-gutzen dugun moduan?

Esku pilotaren jardura lehen ere bazen, eskolaz kanpoko ekintza moduan antolatuta: Udalak eta eskolak herri eskolako umeentzat bultzatzen zuten. Entrenatzaile bat izaten zen eta partiduak antolatzen ziren. Gure umeak han zeuden eta horregatik guraso batzuk kirol honen inguruan ibiltzen ginen orain bost urte inguru seme-alaben entrenamenduetara joaten, partiduetara eroaten... Orduan, pilota talde finko eta antolatua antolatze-ko ideia sortu zen gure artean, poliki-poliki, elkarte sendo bat egitea, nolabait esateko, eta hala egin genuen. Gaur egun, Olarreta elkarte ofiziala da, bere izen propioarekin, eta horrela funtzionatzen du.

Zer aldatu da harrezkero?

Lehenengo eta behin, gaur egun adin eta mota guztietako ume eta gazteak daude. Lehen, eskolaz kanpoko ekintza zen, eta gazteak 12 urterekin eskola utzita instituturara joaten zirenean, jardura eten egiten zen, desagertu, eta ez zuen jarraipenik izaten. Orain, berriz, bost eta hoge

urte bitarteko pilotariak ditugu, eta denek izaten dute pilota eskolan parte hartzeko aukera eta bertan gura beste denboran aritzeko, harik eta beste eskola batera joan, pilotari utzi edo profesionaletara pasatu arte. Beste alde batetik, entrenamenduak adinaren arabera antolatu eta sailkatu dira. Aurten pala jokalaria ere baditugu eskolan. Txapelketa ugari daude eta guztietan hartzen dugu parte... Aldaketa asko egon dira, parte hartzea ere handitu delako.

Zenbat pilotari daude gutxi gorabehera aurten? Zenbatek hartzen dute parte txapelketetan?

Hogeita hamabost bat ume eta gazte daude, gutxi gorabehera. Aurreko urteetako batzuek utzi egin diote, baina jende berria apuntatzen ari da. Bada mugimendua, eta hori seinale ona dela uste dugu. Gainera ia denek jokatzen dute txapelketetan, txikienek izan ezik. Badira kategoria guztietako pilotariak: umetxoak, umeak, gaztetxoak, gazteak eta nagusiak. Eta nahi beste txapelketa ere bai: eskolen artekoa, Uribe Kostakoa, afizionatuen herri artekoa, nagusien palakoa...

“Ez dugu inoiz asmo handiegirik izan. Gure helburua da kirol hau zabaltzea, eta herriko ume eta gazte guztiek pilotan aritzeko aukera izatea”

Txapelketa guztiak berdinak dira ala badago berezirik honetan ere?

Txapelketetan badira kategoria eta maila desberdinak, baina orokorrean nahikoa orekatuta daude. Txorierrikoa da, antza denez, pilotarientzat gustukoena. Hobeto pasatzen dute, eskualdeko kontrarioekin jokatzen dutelako edo partiduetan hurreko herrietakoekin jartzen direlako harremanetan. Gehienek elkar ezagutzen dute, jende gehiago hurbiltzen da... Txapelketa hori eskolako bukatu ondoren antolatzen da, gure eskualdean pilota sustatzeko, pilotariak elkar ezagutzeko eta euren artean jokatzeko. Emaiza ikusita arrakastatsua izaten dela esan daiteke.



Angel Fernandez eta Karlos García elkaratearen sortzaileak ditugu

Eskolen arteko koordinazioa eta antolatze lana ere nabarmendu gura genituzke.

Zuen asmoak bete direla esan daiteke, orduan? Zein da eskolak betetzen duen funtzioa herrian?

Guk ez dugu inoiz asmo handiegirik izan. Gura helburua da kirol hau zabaltzea, eta herriko ume eta gazte guztiek, gustukoa badute, pilotan jokatzeko aukera izatea. Eta hori salbuespenik gabe. Txandaketa sistemaren bidez pilotari guzti-guztiek jokatzeko dituzte partiduak, entrenatzen dira... Baita txapelketak irabazi ere. Neskak nahiz mutilak izan, eta berdin txikiak, gazteak nahiz nagusiak badira. Antolatzen diren torneoak eta txapelketak denek parte hartzeko modukoak dira. Entrenatzaileak herrikoak ditugu, pilota munduan sartuak eta onak, gainera. Taldeak finkatuz joan dira, modalitateak handitu, eta belaunaldi berriak ikusten dira. Egindako lanak denborarekin aurrera egiten du. Herri txiki honetan pilota elkar-

tea kirol arloan erreferente bilakatu dela uste dugu, eta hori ere poztekoa da.

Mutilen artean bai, eta neska askorik badago?

Lau neska aritu dira pilotan gutxira arte. Haietako bat Euskadiko txapelduna izan zen. Pilota gizonetzko kiroltzat hartu da betidanik, eta gazteak nagusitu ahala desberdintasunak sortzen dira, baina neskak egon direnean oso esperientzia ona izan da. Orain bik utzi diote ikasketengatik; besteek aurrera jarraitzen dute. Eta hemendik neskak animatu nahi genituzke eskolara hurbildu eta parte hartzera, zenbat eta gehiago egon, errazago izango delako mundu honetan ere leku eginez joatea.

Zein da elkaratearen sostengua? Nola eusten dio lan honi guztiari?

Udalaren eta Foru Aldundiaren diru laguntza jasotzen dugu, baina eskola gero eta handiagoa da eta leku gehiagoetatik

“Larrabetzun pilota elkarteak kirol arloan erreferente bilakatu da, eta hori poztekoa da”

“Animatu nahiko genituzke neskak eskolara hurbiltzera, zenbat eta gehiago egon, errazago izango delako mundu honetan ere lekua izatea”

mugitzen da. Horregatik pentsatu da kuota bat ordaintzea. Babesleen bila ere bagabiltza, eta Gabonetako loteria atera dugu. Beti ibiltzen gara juxtu-juxtu...

Zer dago faltan, edo sobran, elkartean eta eskolan?

Eskola sasoian dagoela uste dugu. Denbora gutxian indartu eta handitu da, ea horrela jarraitzerik badugun. Proiektu garrantzitsua dela pentsatzen dugu, herriko gazteei zuzenduta egoteaz gainera kirol eremua zabaltzen duelako. Horretarako animatu nahi ditugu gurasoak ere etortzera, partiduetan laguntzera, zerbait antolatu behar denean eskua ematera, laguntza talde bat osatzera lan zehatzetarako... Jendea inoiz ez dago sobran, eta inguruan egoteak asko laguntzen du lana aurrera eroaten.

Testua eta argazkiak: Ines Serrano

Logopedia, hizkuntz akatsak zuzentzeko teknika

Pertsonak eta bereziki haurrek hizkuntz akatsak nahiz ahotsarenak eduki ditzakete, baina, gaur egun, erraz samar gaindi daitezke, teknika egokia erabiliz. Lutxi Silvano adituak Andra Mari Klinikari lan egiten du eta esperientzia handia du arlo honetan. Berak azaldu dio Aikor! aldizkariari akats horiek zelan eta noiz antzematzen diren eta halako arazo baten aurrean gurasoek zer jokabide hartu behar duten.

Lutxi, zer da logopedia?

Pertsonaren hizkuntza eta ahots arazoak tratatzen dituen osasunaren zein hezkuntzaren arloa dugu logopedia.

Noiz igarri daiteke horrelako arazoren bat?

Umeengan lau urte eta erdirekin edo bost urterekin antzeman daiteke. Kasurik gehienetan maisu-maistrak izaten dira arazook detektatzen dituztenak, eta, hain zuzen ere, adin hori da momenturik egokiena tratatzen hasteko. Gainera, uste denaren kontra, akatsok ez dira berez desagertzen, eta zazpi urtetik aurrera zuzentzea zailago izaten da, ordurako gauzaren eta hitzaren arteko lotura, umeak ahoskatzen duen moduan, oso estua baita. Beraz, itxarotea garapen psikikoa eta ikasketa prozesua zailtzea eta atzeratzea baino ez da.

Zeintzuk dira sintomak?

Eskuarki fonemak aldatzen dituzte, esaterako "r" barik "d" ahoskatzen dute, edo "rr" barik "r". Era berean, "bra" "bla" eta "gra" moduko fonemekin, eta baita "s" eta "k" fonemekin ere, zailtasunak izaten dituzte. Beste kasu batzutan silaba osoak "jaten" dituzte. Bestalde, badira ume disfonikoak ere, ahots-aparatuaren disfunzioen ondorioz, berbetan txarto egiten dutenak alegia. Umeok ia ahots barik gelditzen dira, alderantzizko arnasketa egiten baitute, hau da, sudurretik arnastu beharrean ahotik amasten dute eta soinuak sortzeko ez dute haizea kanporatzen sartzen baino.

Gurasoek beldur izaten gara arazoa onartzeko eta tratatzeko gaietan?

Bai, eta horrek zaildu egiten du tratamendua sasoiz hastea. Baina, ez gara zertan beldur izan. Ume hauek ez dute inolako inteligentzia

arazorik, eta gehienak bizkorrak izaten dira. Gainera, fisioterapeuta batengana joateko taburik ez badaukagu zergatik eduki behar dugu errezelarik logopeda batengana joateko? Ez dauka zentzurik.

Lutxi, zer arazo gehiago tratatzen dituzue?

Ohikoak izaten dira dislexiak ere, hau da, irakurketan zein idazkeran akatsak egitea. Horrez gain, maisu-maistren ahots arazoak tratatzen ditugu, pertsonen toteltasuna edo disfemia –silabak errepikatzea, ahotsa trabatzea eta nekez hitz egitea- eta baita istripuen eta tronbosien ondoko hizkuntza arazoak ere.

Zertan oinarritzen da zuen terapia?

Ohitura akastunak zuzendu eta ahoskera eta portaera berriak sortu eta finkatu egiten ditugu. Horretarako umeen terapia jokoan oinarritzen da. Beraz, diagnostikoa egindakoan mihia, ezpainak, ahosabaia, arnasketa edo tratatu beharrekoa modu natural eta ludikoan egiten dugu, beti ere umea pozik eta alai egon dadin.

Azkenik, zer aholkuak emango zenizkiguke gurasooi prebentzio moduan?

Gurasoek seme-alabei modu egokian egin behar diete berba, eredu onak emanez. Hau



da, esaldi osoak egitea, eta esaldiok, gainera, ondo egituratuak izan daitezela. Bestalde, umeen akatsak ez ditugu indartu behar, txarto esandakoa barregarritzat hartuta. Arazoak dituztenekin, gainera, akatsak ez ditugu etengabe zuzendu behar ezta beste umeekin konparatu ere, gehiegi ez kezkatzeko, eta esaten duenari garrantzia emango diogu eta ez esateko moduari. Azkenik, arazorik badago logopedara joatea inolako beldurrik gabe aholkatuko nuke, hasierako batzarra informatiboa baita.

• Arazoak:

Hizkuntza arazoak
Komunikazio arazoak
Ahots arazoak
Ahotsaren galera
Ortodontzia arazoak
Maisu-maistren ahots galerak
Istribuen ondoko berba egiteko ahalmen galera
Ikasketa arazoak

• Zergatiak:

Berandu hitz egiten hastea
Arreta falta
Familiartekoren baten akatsak imitatzea
Ahotik arnastea
Mihia-aren trebetasun eza
Entzumen eskasa
Soinuak txarto bereiztea
Ortodontzia arazoak

Animo Alberto



Aikor! aldizkariko laugarren zenbakitik hasita, huts egin barik izan zaitugu hilero zure kolaborazioak eskaintzen, eta gehienontzat hain konplikatu den Teknologia mundu horretan argi apur bat jartzen.

Ezbeharraren berri izan dugunetik, jakin ezazu, Alberto, Aikor! egiten dugun

guztion buruetan zaudela. Eta irakurle guztion izenean ere aupada bat bidaltzeko moduan gaude, ziur asko. Badakizu, aurreko urteetan bezala, aldizkariaren hurrengo jaialdian zita duzula Aikor!-en lagun guztiekin. Elkar ikusiko dugu bertan. Ez egin hutsik!

Windows XP euskaraz kaleratu da

Windows XPren euskarazko bertsioa kalean dugu, eta esku-ratzeko Internetetik Language Interface Pack (LIP) jaitsi eta gaztelaniazko bertsioaren gainean instalatu behar da. Instalatzea nahiko erreza da, izan ere LIPk ematen dituen jarraibideei jarraitu baino ez da egin behar. Hala ere, baldintza bi bete behar dira: Windows XP ServicePack 1 instalatuta edukitzea, eta hori gaztelaniaz izatea. Euskarazko bertsioa www.microsoft.com eta www.euskadi.net helbideetan aurkituko duzu. Itzulpena Elhuyar Fundazioak eta Uzeik egin dute.

Irakokizunak

www.iragarkiak.net

Euskaldunen arteko harremanak handitzeko tresna berri bat abian jarri du Interneten Mikoleta elkarteak: www.iragarkiak.net web orrialdea. Euskarazko doaneko iragarkiak jartzeko aukera eskaintzen da atari horretan: etxebizitzaren salerosketa, lana (bilatu edo eskaintzeko), pisukideak aurkitzeko, etxerako gauzak, ekitaldiak...

Iragarkiekin batera argazkia sartzeko aukera ere egongo da, diru kopuru bat ordainduz gero. Atariaren gastuei aurre egin, eta duela urte bi hasitako Euskal Herriko toponimia-ikerketaren finantzatzeko erabiliko du dirua elkarteak.

www.txiki.net, euskal umeon z(d)ibertxokoa

Umeak, euskara eta Internet batu, eta txiki.net web gunea zabaldu da sarean. Umeei zuzendutako txokoa da eta ipuinak, jokoak, kantak eta helbide interesgarriak topa ditzakete bertan. Horrezaz gainera, eurek egindako marrazkiak eta ipuinak bidaltzeko aukera dute, baita iritziak eta txisteak ere.

Gabonak izango dira laster, eta txikienak Olentzerori zer eskatu pentsatzen hasiko dira. Ikazkinari gutunak helarazteko ataria ere badute txoko honetan, eta ideien bat behar izanez gero, beste ume batzuek idatzitakoak irakurri ahalko dituzte. Halaber, margotzeko marrazkiak zein lagunei bidaltzeko Gabonetako txartelak edukiko dituzte. Eta Gabon-kanten errepertorio zabala, familia osoarekin batera abesteko.

Gaztelumendiko oroitarria



1936. urteko Gerra Zibilaren amaieran eraikitako oroitarria ikus daiteke tontorrean. Franco diktadoreak agintea hartu, eta laster egin zen monumentu hori. Handik hona hainbat eraso jaso ditu, eta duela gutxi ere beste bat izan du. Hala ere, tinko mantentzen da.

Inguruan, Burdinazko Gerrikoan hain zuzen ere, gerra garaiko bunker bi topa ditzakegu, baita amaitu gabe dauden beste bi ere bai.

Erresistentzia sinboloak dira Gaztelu-

Txorierrin ezaguna dugu Larrabetzu eta Lezama bitartean dagoen Gaztelumendi. Herri batetik zein bestetik oinez irtenez gero, ordu batean erraz ailegatzten da gailurrera.



mendi eta Burdinazko Gerrikoa txorierritarrentzat, eta behar bezala zaintzea mereziko luke horregatik.

Mereziko luke ingurua txukuntzea eta bertaraino hurbiltzen diren mendizale zein herritarrentzako gozamen-leku bihurtzea. Euskal Herriko Historiako gune esanguratsua da, eta datozen belaunaldiak jakinarazteko beharra daukagu.

Eraikitako oroitarriaren orde, beste bat apalagoa jartzea ere mereziko luke. Eta Euskal Herriaren alde borrokatzen hil

diren guztiak omendu ahalko lirateke bertan, izan ere, urte asko dira indarrez eginitako monumentu mingarri hori derrigorrean ikusten, eta 12 de junio de 1937 data irakurtzen. Francoren gudarosteek Gaztelumendi okupatu zuten egun horretan.

Gaztelumendi gure menditzat daukagu txorierritarrok, eta ezinbestekoa da Udalak gai horretan sartzea, irtentzako egokia emateko. Ziur asko, guztiok poztuko gara.

Testua eta argazkiak: Jabi Agirre

Portugalera hegazkinez, hori beldurra!

Bai, Portugal herri zoragarria da: Alfama auzoa, Belemeko dorrea eta San Jeronimo monasterioa, fadoak, bertako janaria, jende atsegina... Baina Lisboara ailegatu arte pasatu behar izan nuena... Hori ere kontatzekoa da!



Santa Justa Igogailuaren ikuspegia

Baziren urte batzuk oporrik gabe, eta neskaguna eta biok oporrik ahaztezinez, izango zirenak prestatzen hasi ginen. Hainbat agentzian galdetu ondoren, Eroski enpresarekin bidaia kontratatzea erabaki genuen. Bidaia 900 euro balio zuen hasiera batean, baina Bankotelen

bidez (txekeen bidez) ordainduz gero, askoz merkeagoa aterako zitzaigula adierazi ziguten. Bale, gu ados. Diru-kopuru bat utzi, eta bueltatuko ginen bidaia osoa ordaintzera.

Eta horrela egin genuen egun batzuen ostean. Hona hemen gure lehenengo arazoa. Bidaia saldu zigun agentea oporretan zegoen, eta bere ordez zegoena... Bidaia garestiagoa izango zela komentatu zigun neska horrek. Garestiagoa?

Buelta handiak eman eta gogoz kexatu behar izan genuen hasierako prezioa lortzeko, baina azkenean bai: euren errua zela, eta enpresak ordainduko zuela aldea.

Lehenengo oztopa gaindituta, hegazkinari aurre ematea baino ez nuen falta.

Bidaia bat hegazkinez egiten nuen lehenengo aldia zen hori, eta badakizue: agian eroriko zela, ekaitz itzelak harrapatzea gerta litekeela... Beno, lasaitzen saiatu nintzen, baina alferrik. Maletak fakturatu, eta nire ametsik gaiztoena hasi zen.

Hegazkinera igo, eserlekuan jarri eta... —*“Larrialdietako irteerak alboetan dituzue, goiko aldean maskara... Lotu gerrikoak, mesedez”. -Ikusten? Ikusten? Zerbait gerta daiteke...*— Beno, arnasa sakon hartu, eta liburu bat irakurtzeari ekin nion. Hegazkina aireratu, nerbioak sabelean dantzari... Eta zelako buruko mina! Zulagailu batek burmuina zulatzen ari zitzaidala uste nuen. Burua hanken artean jarri nuen, ea horrela pasatzen zitzaidan... Eta egundoko kolpea! -Ekaitz bat? Ez, ez, faltan dudana... —*“Bidaariok ez altxatu eserleketik, zurrunbilo-gunean gaude eta”*. -*Nik jaitsi nahi dut...* Minutu pare bat izango zen, baina betierekotasuna iruditu zitzaidan niri. —*Kaferik nahi? -Bai, gosaldut baino, barrukoa botatzeko moduan nago ni...* Hiru laurdenen ostean, lurrean ginen berriro.

Sei egun bertan igaro ondoren, hegazkinari aurre emateko ordua ailegatu zitzaidan berriz. Buruko minaz aparte, oso bidaia lasai izan zen. Eskerrak!

Lisboa leku ezin baino ederragoa da, atsegin handiz hartu gintuzten, eta primeran pasatu genuen. Pentsatu barik bueltatuko nintzateke berriro, baina hurrengo horretan autoz, trenez edo bizikletaz joango naiz. Hegazkinez? Ezta pentsatu ere! Egon ziur.

Testua: Gorka

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Azelgak patata puregaz

Osagaiak (5 pertsonentzat)

- Dozena bat azelga
- 4 patata
- Oliba olio
- Esnea
- Gurina (mantekilea)
- Gatza

Prestatzeko era

Azelgari kendu trugutxak (penkak) eta lau zati egin, gero arrautz-urusetan pasetako; orriak txiki-txiki egin. Egosi dana presino-kazuelan 10 minututan, gatzat egin eta egosi eta gero ondo eskurridu. Apartatu trugutxak eta arrautz-urusetan pasatu. Patatak egosi, kendu ur guztia, pasatu txinotik eta bota gurina (mantekilea), esne apur bat eta gatzat, eta ondo nahastatu. Bandeja biribil baten ipini: purea erdian, inguruan txiki-txiki egin doguzan azelga-orriak eta ganean, trugutxak arrautz-urusetan pasatuta... eta on egin!



Mari Tere Onaindia

Fideuá berakatz-aparrarekin

Osagaiak (4 lagunentzat)

- 100 g fideo mehe
- 800 g abakando
- 200 g txibia
- 4 birigarro (edo beste hegazti mota bat)
- 100 g tipuleta samur
- 100 g tomate
- 100 g piper berdea
- 20 g berakatz
- Piper txorizero bi
- 4 dl oliba olio
- 6 berakatz atal
- 50 g almendra
- 50 g ogi
- Arrautza zuringo bi
- Gatza, piperbeltza, perrexila eta estragoia

Prestatzeko era:

Abakandoa ur gazitan gardostu hiru minutuan; hezurak kendu, eta okela eta burua gorde. Birigarro-bularkiak gorde eta karkasak labekatu olio, ur, gatz eta

piper apur batekin. 5 cl zuku atera.

Txibia errektangelu handi bitan moztu, eta tailarinetan gero. Sobran gelditzen diren puntak gorde.

Barazkiak txikitu eta abakandoarekin eta potarekin batera erregosi. Urez estali, gatzat eta piperra bota eta irakin poliki-poliki, 700 cl. zuku lortu arte.

Berakatz atalak gardostu ondoren (ura 3 aldiz aldatu), almendrarekin, ogiarekin, zuringoekin eta 2 dl oliorekin batera pasatu irabiagailutik. Nahastutakoa esnegaina igoarazteko sifoi batean gorde (bestela, zuringoak elur-punturaino jo, eta haiek erabil ditzakegu kremari aparra aterazteko).

Zartagin batean fideoak gorritu olio apur batekin (5 cl) eta salda beroaz esta-



Gaminiz-Errieta jatetxea Zamudio

li. Su bizitan irakin 8 minutuan, eta abakandoaren haginak, tailarinetan moztutako txibia eta birigarro-izterrak gehitu. Labea alde zurretik berotu eta bertan 180 gradutan sartu 3 minutuan.

Abakandoaren buztan-zatiak, txibia eta birigarro-bularkiak erregosi. Osagai guztiak eta koilarakada bat berakatz-apa bota fideoei. Birigarro erreko zukua eta belar fresko txikituak gehitu.

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Biolinaren jatorria

Jon Aiaitui

Birika zatiak

Xabi Borda

Hamabost zauri

Karmele Jaio

Oroitzapen urdin iluna

Monique Laxalt

Itzalak

Iban Zaldua

DISKOAK

www.musikagida.gaztesarea.net.

Helbide honetan diskoetxeekin kontraturik ez daben taldeak agertuko dira.

Ttakunpa. gipuzkoar perkusio taldea. Cadizko EA! taldearen azken diskoan parte hartu dabe, txalaparta eta ahotsak jarritz Euz cai abestian.


Kokein talde eibartarrak Rafa Ruedaren gidaritzapean lehenengo lan luzea argitaratuko dau. Hamaika kanta bildu ditu rock boskote honek.

Bat Gehio Bartzelonan bizi diran euskaldunek osatu dabe talde hau. Euren lehenengo lana Diaspor han da. Pop, jazz eta flamenko soinuak lotzen dabez.

DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierri?

Garai baten herri guztiek zeuzkaten "auzo-eskolak". Txikiak baina dotoreak eta sendoak, gaur arte iraun dute zutik. Batzuk "txoko" bihurtu dira, jatetxea batenbat, hutsik ere badaude... Behean dituzu batzuk, asmatu zein auzo eta herriak diren. Kontutan hartu herri batek ez duela.



LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

ERANDIO GOIKOA 3

SONDIKA 4

LEZAMA 5

LOIU 6

DERIO 7

Lauroeta h

Goitioltza i


Izartza j

Goierri k

Goikolexalde l

Geldo m

Benetan ezagutzen duzu Txorierri? Emaizak: A11, B3k, C6h, D4j, E5i, F2m



Antzerkia eta filmak

Zamudio

Shrek 2, abenduaren 3an; *Harry Potter*, abenduaren 10ean; *Mulan 2*, abenduaren 17an. Guztiak 19:30ean, Zamudio dorrean

Maite ipuin kontalaria. Abenduaren 16an, 17:30ean, Haur Liburutegian

Larrabetzu

Elvi bentrilokuoa. Abenduaren 10ean, 18:30ean, Anguleri jauregian

Erakusketak

Derio

Aeromodelismoa. Abenduaren 17tik 19ra, Kultur Aretoan

Derioko I. Argazki Lehiaketaren Erakusketa. Abenduaren 18tik aurrera

Lezama

Gabonetako Postalen Erakusketa. Abenduaren 10etik 24ra, Kultur Etxean

Irteerak

Derio

Saloura bidaia. Abenduaren 4tik 8ra. Argibide gehiago, Udaletxean

Queen, we will rock you musikalera irteera. Abenduaren 30ean. Sarrerak abenduaren 16tik aurrera salgai jarriko dira Udaletxean

Zamudio

Queen, we will rock you musikalera irteera. Abenduaren 30ean. Izena emateko azken eguna: abenduaren 12a

Kontzertuak

Derio

Gabonetako kontzertua, Larrabetzuko Musika Eskolaren eskutik. Abenduaren 14an, 19:30ean, Liburutegian

Txorierrri

Txorierrriko Gabon Kanten XIX. Jaialdia, Derioko Ipar-Alde abesbatzak antolatuta:

Larrabetzu: Abenduak 17, 20:00etan, Andra Mari elizan

Lezama: Abenduak 18, 19:30ean, Andra Mari elizan

Sondika: Abenduak 19, 12:30ean, San Juan elizan

Loiu: Abenduak 23, 19:30ean, San Pedro elizan

Zamudio: Abenduak 30, 19:30ean, San Martin elizan

Derio: Urtarrilak 5, 19:30ean eta hilak 6, 12:30ean, San Isidro elizan

Bestelakoak

Lezama

Euskararen Eguna. Abenduaren 2an, 3an, 10ean eta 11n. Umeentzako jokoak, mahaingurua, antzerkia, pilota partidak

Eskolak euskaldundu behar du, Euskal Herriko Bere Eskolak taldeak antolatuta. Erakusketa: abenduaren 20tik 26ra. Hitzaldia: abenduaren 23an, 19:30ean, Kultur Aretoan

Larrabetzu

Gabonetako Postalen Lehiaketako Sari Banaketa. Abenduaren 10ean, 17:00etan, Anguleri jauregian